



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-12-12

VII URTEA 1.850.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Eskualdeko pertsona ezagunek 'Egunkaria auzia' salatu dute

TOLOSA Auziperatuekiko elkartasuna agertu dute eta «adierazpen askatasunaren eraso» dela nabarmendu

MOBILIZAZIOA Hilaren 15ean 20:00etan elkarretaratzea egingo dute Tolosako Triangulo plazan



Pertsona ezagun asko bildu zen atzokoan Musika Eskolan 'Egunkaria auzia' salatzeko. E. MAIZ



Asko dira GKO-ra gerturatu direnak euren bizipenen berri emateko. E. EZEIZA

Egunerokoari erantzuten dion hiria, Kaleak Berdintzen-i esker

TOLOSA GKO Galerian hiriko gune desberdinek sortzen dituzten sentipenak adierazi daitezke z

abertzaletasuna
Zura aginet bizi

SABO ETA JAIALDI POLITIKOA.

Itxiki:
Zabala
ZABALAN

Aberriak 13, igandea

12:00 Zabal Auzak.
12:30 Itxiki politikoa.
13:00 Itxiki: Joseba EGUILER
13:30 Ozeigona.
14:00 Berri Auzak.
14:00 Auzak-berriak.
Zabal Auzak.

FNV

USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur:
Urteko Ohiko Batzar Orokorrean dei egiten dizut, Euskal Herria plazako TOPICen burutuko dugunera. Batzar hau **abenduaren 17an, osteguna**, izango da **arratsaldeko 19:00etan** hirugarren deialdian. (lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan).

Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:

- 1.-Aurreko urteko aktaren berri jaso.
- 2.-Partaide berriak Juntan eta Gurasoen lan-batzordeak
- 3.-Laskorain Ikastola Euskal Herriko Ikastolen Kooperatiba Europarrean bazkidetzea
- 4.-Balantza eta Aurrekontua.
- 5.-Azpiegitura berriak
- 6.-Kuotak eta finantzazio iturriak
- 7.-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.
- 8.-Akta onartzeko bi kide izendatzea.
- 9.-Galdera eta eskeak

Tolosan, 2009ko abenduaren 11ean
Batzordeko Lehendakaria



Parte-hartzaileek bizipen eta sentipen mapan parte hartu ahal izango dute hilaren 15a bitartean; bertan, bakoitzaren bizipen eta iritziak islatzeko. E. EZEIZA

Kaleak Berdintzen egitasmoarekin egunerokotasunari erantzuten dion hirigintzaren alde egin nahi da; GKO Galerian, modu errazean, hiriko gune ezberdinek sortzen dituzten sentipenak adierazi daitezke.

Egunerokoari erantzuteko hiria

ESTI EZEIZA

Hiri bateko kaleak, etxeak, plazak, eraikinak eta zerbitzu guneak, une edo garaiz zehatz batean finkatutako irizpide batzuen arabera daude egituratuta eta antolatuta. Baina egunerokotasunean ikusten da, zenbait lekutan, arazo handiak, er-tainak eta txikiak daudela. Norkez du, arrazoi ezberdinengatik, beldurra sentitu, leku zehatz batetik igarotzean: arriskutsua delako, iluna, deserosoa, labainkorra...

Herri bateko kaleak denentzat berdina izan behar dute. Haur-erentzat, gazteentzat, adinekoentzat, emakumeentzat nahiz gizoneentzat. Eskubide hau abiapuntuztat hartuta, Kaleak berdintzen egitasmoa martxan jarri dute Tolosako Berdintasun eta Hirigintza sailekoek, Hiria Kolektibokoak eta GKO Galerikoak, elkarlanean. Tolosako kaleek herritarrei sentiarazten dietena jakin nahi da proiektu honekin. Kale, plaza eta inguru ezberdinak hobetu ahal izateko, eta denek eskubide berdinak izateko.

Kaleak berdintzen egitasmoa aurrera eramateko, GKO galerian mapa bat jarri dute lurtean zabaldua. Bestetik, alai, jendetsua, barkaria, iluna, argia, arriskutsua, zikina eta zaindua bezalako hitz batzuk idatzi dituzte. Honela, bertaratzaren direnek, hitz hauek idatzita dituzten eranskailuak hartu eta Tolosako planoan, sentipen hori transmititzen dieten lekuan itsatsi beharko dituzte. Hamar hitz baikor daude, eta beste horrenbeste ezkor.

Tolosako plano erraldoiaz gain, beste bi txikiago ere aurkitu daitezke, bata maitasunari eta gauza goxoei lotuta dago. Bestea berriz, arazo eta beldurrei. Hauetan, jendeak toki bat markatzen duenean, bertan idatzi dezake, zein arazo izan zuen hor edo zein oroitzapen zorionsu duen horren inguruan. Horren adibide dira irakurri daitekeen esaldietako batzuk: «Plaza Berrian maitemindu nintzen» edo «Hemen lapurtu egin zidaten».

Proiektu hau lantzeaz Hiria Kolektiboa arduratu da. Elkarrekin hau arkitekto talde batek osatzen du,



Argiztapen sistema berezia

KULTURA ■ Kaleak Berdintzen proiektuarekin lotuta Julieta Metraietari artistak, Alde Zaharreko tunel bateko argiztapen eredua egin du. Honela, zubi horri ikuspuntu artistiko bat emateaz gain, argiagoa izatea lortu nahi izan du eta erabiltzaileentzat erosagoa. Hala ere, hau proba bat da, eta egun batzuetan bakarrik egongo da jarrita. E. EZEIZA

zein herritarren eta Udalaren arteko bitartekari lanak egiten saiatzen den. Tolosako kasuan, Koldo Telleria, Eider Goya eta Oihane Ruiz ari dira lanean, baita Julieta Metraietari artista.

Egun hauetan ateratako ondorioak bildu ostean, Udal ordezkariekin bilduko dira Hiria kolektibokoak, eta hobekuntzak aurrera eramaten ahalegingundo dira.

Tailerretatik, Kaleak berdintzena

Hiria kolektibokoak Udaleko berdintasun sailarekin bildu ziren proiektua abiatzeko garaian. Elkarlan honen lehen pausoa tailer-erantolatzea izan zen; Jabeakuntza Eskolekin alde batetik, landa eremuko emakumeekin bestetik, eta EPAko ikasleekin, azkenik.

Hiru talde hauekin egindako hiri azterketa herritarrei zabaltea erabaki zuten gero, eta hemendik jaio zen Kaleak Berdintzen egitasmoa. Modu sinple batean jendeak adierazi dezake zeintzuk diren Tolosako hirigunean dauden arazoak.

Eguneroko bizitzari erantzun behar dion hirigintza baten alde lan egiten dute Hiria Kolektibokoek. Beraien hitzetan genero ikuspegitik lan egiten badute ere, hau ez da emakumeen gauza bat, baizik eta eguneroko bizitza errazteko ahalegin bat. Oihane Ruizek azaldu bezala, «orain arte, modu produktibo batean bakarrik ikusi da hirigintza, eta ez dira kontuan hartu, adinekoak, haurrek, zainketak, harremanak... batez ere gizonek antolatuta dituztelako hauek».

Izendatutako «puntu beltzak»

Adin eta inguru ezberdinetako jendea ari da hurbiltzen egun hauetan GKO Galeriaran, bere iritzia emateko. Honela, gune zehatzeko, herritar bakoitzak ikuspuntu desberdina duela ikusi daiteke. Oro har, zenbait tokirekiko adostasuna erakusten dute parte hartzaileek. Esaterako, Bonberenea, Plaza Berria eta GKO Galeria baikorki baloratu dituzte. Apeaderoa, Parke Jurasikoa eta San Esteban auzoa berriz, nahiko negatibo.

Parte hartzaile bakoitzak bere hondar alea uzten du

Astean zehar, 18:00etatik 20:00etara dago zabalik GKO Galerian, jendearen ekarpenak jasotzeko. Asteburuetan berriz, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara zabalitzen dute; igandean, 10:00etatik 14:00etara.

Hilaren 2an hasi zen egitasmoa eta datorren asteartera arteluzatuko da. Egunero 15 lagun inguru hurbiltzen dira beraien iritzia emateko. Hala, behin eranskinak jarrita, aukera dute argizki bat ateratzeko, hor izan direla jasotza gertzeko.

Gainera, aurrera begira, proiektuari jarraipena emateko, erretratu guzti hauek maparen gainean kokatu eta jendeak ikusteko kalera atera nahi dute.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

SALGAI

■ **Egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Deitu 615 75 57 62ra.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako kafetegiko inkegi batean pertsona bat behar da arratsaldean lan egiteko. 25 urtetik gorako izateaz

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Deitu 615 75 57 62ra.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako kafetegiko inkegi batean pertsona bat behar da arratsaldean lan egiteko. 25 urtetik gorako izateaz

eskatzeko. Deitu 661 46 31 93ra.

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. 63894 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

ALOKAIRUA

■ **Logela.** Neska batek logela bat nahi du alokairuan. Tolosaldean, ahal bada neskekin. 677 50 52 94.



Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatze eta auzipetuen alde adierazpena luzatzeko bildu ziren Musika Eskolan. E. MAIZ

Eragile eta pertsonaia ezagunak epaiketaren aurka azaldu dira

'Egunkaria auzia' »

Irakurritako adierazpenarekiko atxikimendua agertu zuten Musika Eskolan.

ENERITZ MAIZ

Euskaldunon Egunkariaren eta auzipetuen alde egiteko eta egoera salatze pertsona ezagun asko bildu zen atzo, Tolosan. Horiek horrela, hilaren 15ean Triangulo plazan egingo den elkarretaratzearen eta hilaren 19an 17:00etan Bilbon izango den manifestazioaren berri eman zuten.

Jose Mari Iturralde, Aiora Zulaika (Pirritx), Iñaki Epelde, Longaron, Ramon Olasagasti, Joxe Mari Gorrotxategi, Isitxo Larrañaga, Iker Galartza (Poxpolo), Joseba Usabiaga, Eli Nosellas, Haritz Iglesias, Karlos Linazasoro, Luis Mari Garcia, Antton Soroa, Itziar Arratibel, Isabel Salaberria, Amando Hernandez, Benito Usabiaga, Joxemi Saizar, Silvia Mateo, Aitor Belloso, Andoni Imaz, Koldo Arsuaga, Josu Iztueta, Iñaki Arra-

tibel, Koldo Tarragona, Iñaki Salvador, Antton Izagirre, Onintza Lasa, Jokin Bildarratz, LAB, ELA, EHNE, Iñaki Letamendia eta Mari Karmen Arizkorreta izan ziren besteak beste, Tolosako Musika Eskolan elkartu zirenak.

Dagoeneko jakina den moduan, akusazioek behar besteko oinarririk ez zeukatela, fiskaltzak kasua behin betiko ixteko eskatu zuten. Hala ere, Auzitegi Nazionalak, AVT-ren eta Dignidad y Justicia-ren herri akusazioa aintzat hartuta epaiketa egitea erabaki du eta hilaren 15ean hasiko da.

Bertaratutakoek, 2003ko otsailan gertatu zena ez zuela gertatu behar, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak Euskaldunon Egunkaria, euskarazko egunkari bakarra, itxi zuela gogoratu zuten.

Adierazpena

Euskaldunon Egunkaria itxi izana eta Martxelo Otamendi eta gainerako inputatuak epaitzea arbuatu beharra dagoela uste dute aipatu pertsonak eta honako arrazoi hauek eman nahi izan zituzten atzo irakurritako adierazpenen.

Lehenik eta behin «adierazpen askatasunaren ukazioa eta informazio pluraltasunaren aurkako eraso da, eta era berean, bere burua demokratikotzat daukan estatu orok printzipio horiek errespetatu eta defendatu behar ditu» nabarmendu zuten. Jarraian, «euskararen eta oro har, euskal kulturaren aurkako eraso argia da, baita Euskal herritarrek komunikabide propioak garatzeko daukaten eskubidearen aurkakoa ere», argitu zuten.

Hirugarren puntuan «auzipe-tuetako batzuk torturatu izana erabat onartezina» dela argitu zuten eta baita «tortura horiek Espainiako estatuan izan diren tratu txarren salaketa multzo luzeko parte» direla ere. «Nazio Batuen Erakundeko kontalariak berak eman du torturen berri», gaineratu zuten.

Guzti honengatik, herritarrei epaituko dituzten pertsonen elkartasuna adierazteko eskatu zieten, adierazpen honekiko atxikimendua emateko eta berau zabaltzeko. Baita auzibide honek eta beste batzuek zapaltzen dituzten eskubide demokratikoak defendatzeko ere.

Hurrengo egunetako deialdiak

Epaiketa hilaren 15ean hasiko denez, egunean bertan Euskal Herriko herrietan elkarretaratzeak egingo dituzte auzia salatze. Tolosako Triangulon, hilaren 15ean 20:00etan izango da. Bestalde, hilaren 19an, Bilbon manifestazio nazionala egingo dute eta bertara joan ahal izateko, Tolosako Egunkariaren Aldeko Batzordeak, autobusak antolatu ditu.

» DEIALDIAK

Elkarretaratzea

- **Berastegi.** Bihar, hilak 13, 13:00etan herriko plazan.
- **Tolosa.** Hilak 15, 20:00etan Triangulon.

Manifestazio Nazionala

- **Hilak 19.** 17:00etan Bilbon, Aita Donostia plazatik.
- **Autobusa.** 15:00etan Tolosako Zezen Plazatik.
- **Txartelak.** Tolosako Hitzako egoitzan, Galtzaundin eta Raku zein Denak tabernetan.
- **Prezioa.** 10 euro.
- **Epea.** Hilak 18 arte.

Laburrak

'Shorts y la piedra magica' eta 'Luna Nueva', Gurean

VILLABONA • Asteburu honetan, Gurea Zinemaren bi filma eskainiko dituzte. Gaur 17:00etan hasita, *Shorts y la piedra magica* filma ikusteko aukera izango da. 19:30ean berriz, *Luna Nueva* eskainiko dute eta ikusteko bigarren aukera 22:30etik aurrera izango da. Bihar 17:00etan *Shorts y la piedra magica* filma egongo da eta 19:30ean *Luna Nueva* eskainiko dute. Astelehena, hilak 14, ikuslearen eguna dela eta 21:30ean *Luna Nueva* izango da.

Makrobiotika ikastaroan izena emateko aukera

ANOETA • Hilaren 23an eta 30ean, Kuku Elkartearen makrobiotika saioak izango dira gazte eta helduentzat. Bi eguneko saioa 20 euro kostatuko da, baina ikasle eta langabentuentzat 15 euro izango da. Bestalde, egun batean bakarrik jotzeko aukera dago eta kostuaren erdia ordaindu behar da. Izena udaletxean edo kiroldegian eman behar da hilaren 16rako.

2010eko pilotalekuko erreserbetarako bilera

ANOETA • 2010. urterako frontoiko orduen erreserba egin nahi duten guztientzat bilera bat antolatu du Udalak. Bertan, urteko orduen banaketa adostuko da. Bilera, abenduaren 15ean izango da, 18:30ean udaletxean.

Alegi eta Tolosako AHT-ko akta altxamenduak

ALEGIA • Hilak 15, asteartea, 08:30ean Alegiako Udaren aurrean elkarretaratzea egingo dute Abiadura Handiko Trenaren akta altxamenduak direla eta. Hurrengo egunean, hilak 16, gauza bera dela eta, 08:30ean Tolosako Udaren aurrean elkartuko dira elkarretaratzea egiteko. 11:00etan elkarretaratze burrunbatsua gauzatu dute.

Zuzenketa. Atzoko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN 6. orrialdean Iñaki Lizaso Behar Zana Elkarteak arduraduna zela agertzen zen, baina bera Behar Zana pilota eskolako irakaslea da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Salus Balza organista gogoan, bere heriotzaren 25. urtemugan

Musika » Urtemuga bera ospatzen duen Laiotz elkarteak bere omenezko kontzertua antolatu du gaurko, Santa Klara komentuan 20:15ean, Hodeiertz eta Arimaz taldeekin.

JOXEMI SAIZAR

Gazterik hil (50 urte baino lehen, gaixotasun batez) eta Tolosan ahaztu xamarra dagoen herriko musikari bat omenduko dute gaur Santa Klara komentuan 20:15ean: Salustiano Balza Eguren. Santa Maria parrokiako organo-jotzailea, Tolosako Udal Musika Eskolako piano irakaslea, hainbat abesbatzarako zuzendaria eta zenbait lekutan piano-jotzailea izan zen Balza. Duela 25 urte hil zen, bere lagun batzuk Santa Maria kalean Laiotz elkarte sortu zuten urte berean. Bi urtemugak elkartuko dituzte gaur bere omenezko kontzertu batean, tartean berak harmonizatutako bi obra entzuteko aukera emanez.

Herriko bi musika talde ariko dira Balzaren omenez: Hodeiertz abesbatza eta Arimaz kamera orkestra. Bakoitzak bere aldetik launa obra eskainiko ditu. Arimaz kamera orkestrak Albinoniren *Introduzione seconda*, Corelliren *Sonata V la minorrean bi biolinentzat*, Purcellen *Come ye sons of Art* eta Scarlattiren *Sonata la maiorrean* eskainiko ditu Kepa Martinez de Albenizen zuzendaritzapean, Amaia Arostegi flautista eta Iker



Salustiano Balza Eguren. HITZA

Nausia oboe-jotzailea bakarlarri gisa arituz.

Hodeiertzek berriz, Gustav Nordqvisten *Jul, Jul Stralande Jul!*, Mikel Laboaren *Txoria txori* (Javier Bustok harmonizatua), David Azurzaren *Suari kanta* eta Eva Ugalderen *Xirmi xarma* interpretatuko ditu, Enrique Azurzaren zuzendaritzapean. Azkenik, herriko bi taldeak elkarrekin ariko

dira Jose Arzelus organistaren laguntzarekin (Santa Maria parrokiako organoan Salus Balza hil zeneatik ordezkatu duena).

Eduardo Mokoroa irakaslearen *Cantate domino* eta Salus Balzak berak harmonizatutako eta Patxi San Sebastianek orkestratutako *Gabonetako kantak* eta *Agur Jai-nak* obra ezagunak eskainiko dituzte.

Musikari ahaztua

Aurten 25 urte dituen Laiotz elkarteko kideak aritu dira kontzertu berezi hau prestatzen. «Elkarte txikia gara, baina urtemuga honean parrokiaren eta elkartearen lagun genuen Salusen omenez zerbait egitea pentsatu dugu, bere garaiaren gauzak ez zirelako ondo egin», adierazi du Iñaki Garmendia Laiotz elkarteko kideak.

Berak harmonizatutako bi obra eskainiko dituzte Hodeiertz abesbatzak eta Arimaz kamera orkestrak

Santa Maria parrokiako XIX. mendeko musika tradizioa mantendu zuen Fernando Aizpuruarekin

Garmendiak bezala, Enrique Bellok ere laguna zuen eta elkarrekin kamera musika egiten aritu ziren. «Gizon atsegina, irekia, jatorra zen. Formazio sendoa zuen eta zailtasun handiko obrak interpretatzen zituen. Pianista bezala gehiago nabarmendu zen organista bezala baino. Laguntzaile gisa ere asko aritu zen. Garai erromantikoko konposatzaileak zituen gustuko: Chopin, Rachmaninov...», dio Bellok.

Donostiako Gotzaitegiak Santa Maria parrokiako organo-jotzaile izendatu zuenean 1972an «poz handia» hartu zuela gogoratu du. Fernando Aizpuru parrokiako abesbatzaren zuzendariarekin batera elkarlanean aritu ziren hainbat urtez eta XIX. mendeko musika tradizioa mantendu zuten Santa Maria parrokiaren.

PIANISTA, ORGANISTA, ABESBATZA ZUZENDARI, IRAKASLE, MUSIKA ARINEAN ARITUA...

Salustiano Balza Eguren Tolosan jaio zen 1934ko ekainaren 8an. Tiple gisa abesten hasi zen Santa Maria parrokiaren eta Eduardo Mokoroa musikarako erraztasuna nabarrituta, gazterik hasi zen Eduardo eta Ignacio Mokoroarekin solfeo, harmonia eta pianoa ikasten. Donostiako Kontserbatorioan amaitu zituen ikasketak. Ondoren instrumentazioa ikasi zuen Eduardo Mokoroarekin eta abesbatza zuzendaritza Luis Morondorekin. Ceutan soldaduska egiten ari zela, Luis Rego pianojolea ezagutu zuen eta berarekin interpretazio teknika ikasi zuen.

Hainbat sari jaso zuen piano lehiaketetan. Santa Maria parrokiako musika kaperako zuzendari izan zen 1953tik 1972ra Ignacio Mokoroa organista zenean eta hau hil zenean organista gisa ordezkatu zuen, 1972tik 1984an hil arte, Fernando Aizpuru izanik zuzendaria. Organo kontzertuak eskaini zituen, besteak beste Arrameleko San Joan ermitako organoren inaugurazioa eta Bergarako San Pedro elizan.

Musikatik bizitzeko aukera gutxi zegoen garai hartan eta beste hainbat tokitan ere aritu behar izan zuen pianista gisa: musika arineko orkestra batean Hamburgon, Donostiako Monte Igeldo, Zorongo eta La Perla diskoteketan, Zestoako Balnearioan, Donostiako Kontserbatorioko Orkestra Sinfonikoan txelestarekin, Oinkari eta Leidor abesbatzak zuzendu zituen... Hainbat komposizio eta moldaketa egin zituen, batez ere abesbatzarako. Azken urteetan Udal Musika Eskolako piano irakasle gisa ere aritu zen lanean.

1984ean hil zen gaixotasun batez, baina azken ordurarte bere eginbeharrak bete zituen.

» INKESTA

Zein harreman izan zuten Salus Balzarekin eta nolako musikari eta pertsona izan zen?

«Gizon handia izan zen, ofizioa ezagutzen zuena»

German Ormazabal

IKASLE ETA ORKESTRARAKO ZUZENDARI OHIA

Gizon txikia zen, baina musikaz ari garenean «gizon handia», organista bikaina zen. Beti trajez jantzia gogoratzen dut eta, inor ez bezala, pajarita ezberdinekin, bai astegunetan, baita asteburuetan ere. Erretzaile amorratua izanik, bere pianoaren tekla zuriak zeharo horituta zeuden. Beharbada ez zen Rubinstein izango interpretazioaren ikuspuntutik, baina haren adinako «ofizioa» gutxi zuten laguntzaile gisa, gehienbat abeslariarekin, eta tonuz kanpo abesten hasiz gero, tonua aldatu eta berdin berdin jotzen jarraitzeko ahalmena handia zuen.

«Gorriti eta Mokoroaren eskolako azken organista»

Patxi San Sebastian

BIOLIN IRAKASLEA

Ignacio Mokoroarekin ikasi nuen musika eta berak ezin zuenean Izaskunen edo parrokiaren zerbait zuelako, Salusek ematen zigun solfeo klasea. Lagun harremana izan genuen, Enrique Bello eta beste batzuekin pieza batzuk jotzen genituen. Beti Tolosan Gorriti eta Mokoroatarrak aipatu izan dira eta gero Javier Bello Portu, baina Salus ere organista ona izan zen, bere lana egin zuena. Gorriti eta Mokoroatarrak eskolako azken organo-jotzailea izan zen. Inprobisatzaile ona izan zen organoan, baina paperean idatzita gutxi utzi zuen.

«Jotzen entzundakoa, beti zerbait esaten zigun»

Jose Manuel Agirre

DULTZAINARIA ETA IKASLE OHIA

Nire lehen musika irakaslea izan zen, 7-8 urte nituela. Mokoroatarraren etxean ematen zituen klaseak. Gero Miguel Martinez de Lezearrekin txistua ikasi nuen. Harreman musikalki ez nuen izan Salusekin. Elizan murgildutako musikaria zen eta hiruzpalau aldiz bakarrik abestu nuen Santa Maria-ko musika kaperan, baina Ignacio Mokoroarekin izango zen seguraski. Hala ere kale giroa gustatzen zitzaion eta txistua edo dultzaina jotzen entzundakoa beti zerbait komentatzen zigun. Gizon alai zen, itxura bereziko, beti bere pajarita jantzita zuela.

«Bere meritua eta lana ez zen behar bezala baloratu»

Enrique Bello

BIOLINISTA

Txikitatik harremana izan nuen eta gero parrokiako orkestran esertu nuen erlazioa. Iñaki Garmendia, Patxi San Sebastian eta Francisco Tudurirekin batera kamera musika asko jo genuen bere estudioan. Oporretan egunero elkartzen ginen jotzeko. Eta gero laguntaldean ibiltzen ginen mendian, txikitoean... Pianista bikaina zen eta musikari profesionala: elizan, ezkontzetan, klaseak ematen... Organojole gisa, musika kaperan XIX. mendeko tradizioa mantendu zuen. Irekia eta gertukoa izanik, bere meritua eta lana ez zen behar bezala baloratu.

«Musikatik bizitzea lortu zuen garai oso zailetan»

Francisco Tuduri

FLAUTISTA ETA IKASLE OHIA

Solfeo erakutsi zidan unibertsitate ikasketak amaitu ondoren eta irakasle-ikasle harreman hori adiskidetasun harremana bihurtu zen. Gizon handia zen, sentisibleria, bere kasa egindakoa. Orain ere zaila da musikatik bizitzea, baina orduan are zailagoa, eta lortu zuen. Tolosak eman duen musikari handietako bat da, ez behar bezala baloratu. Garmendia, San Sebastian eta Bellorekin batera kamera musika barrokoa egiten genuen bere etxean (batzuetan parrokiaren, soinu ho-bearekin), tarteka Kike Ugarte ere biltzen zen. Gaixo zela, nire ezkontzan jo zuela gogoan dut bereziki.

Liburutegi digitala

"Jakintza unibertsala,
apeletatik zure ordenagailura."

"Sabiduria unibertsal, de la estanteria
a tu ordenador."

"Sagesse universelle, de l'étagère
à l'ordinateur."

Gipuzkoa2.0
KULTURAREN ERABILERA
WWW.GIPUZKOA2.0.EU

"Euskal kulturaren erabilera
guztionez erabiltzea izatea helburu
duen bide arria."

"La hoja de ruta que quiere convertir
en costumbre cotidiana el uso de la
cultura vasca."

"La feuille de route qui veut changer
en coutume quotidienne l'usage de la
culture basque."



zure, gure, denon liburuak.

www.kmliburuak.net

Galtzakomik Lehiaketako lanik onena, Iosu Mitxelenarena

Ibarra » 12 urte azpikoetan Paulo Albisuak irabazi du eta 12-18 urte artekoetan, berriz, Markel Galbete izan da lehena.

NOELIA LATABURU

Galtzakomik Lehiaketaren bigarren edizioa ere heldu da amaiera-ra. Galtzaundik eta Ibarra Udalak antolatu duten lehiaketaren sari banaketa atzo iluntzean egin zuten. Helduen mailan Oiartzungo Iosu Mitxelena izan zen irabazlea eta zilarrezko domina Trapagarango Amaia Ballesterosek eraman zuen.

Beste bi maila ere bereiztu dituzte aurtengoan antolatzaileek. Batetik, 12 urte azpikoena, eta 12 eta 18 urte artekoen maila, bestetik. Lehen mailan Ezkio-Itsasoko Paulo Albisuak irabazi zuen lehen

» SARIAK

12 urte azpikoak

- **Lehen saria.**
Paulo Albisua (Ezkio-Itsaso).
- **Bigarren saria.**
Ane Antxustegietxarte (Tolosa).

12-18 urte artekoak

- **Lehen saria.**
Markel Galbete (Olazti).
- **Bigarren saria.**
Ane Arzelus (Donostia).

18 urte gorakoak

- **Lehen saria.**
Iosu Mitxelena (Oartzun).
- **Bigarren saria.**
Amaia Ballesteros (Trapagaran).

saria. Bigarren sailkatua, berriz, Ane Antxustegietxarte izan zen. Bigarrenengoan Markel Galbetek eraman zuen lehen saria Olaztira. Iaz ere parte hartu eta saridun



Atzo iluntzean egin zuten sari banaketa Benito Izagirre kultur etxean; Kike Amonarriz izan zen aurkezlea. N. LATABURU

suertatu zen Galbete. Bigarren saria Ane Arzelus donostiarrarentzat izan zen. Lan gehienak bailaratik bertatik heldu dira; Nafarroatik, Arabatik eta Bizkaitik ere hartu dute parte.

Ekitalditik ez ziren esku hutsik irten irabazleak. Hala, Iosu Mitxelenarentzat 600 euroko saria izan zen. Ballesterosek, berriz, 400 euro irabazi zituen. Diru kopuru berdina eraman zuen Markel Galbetek ere; eta 200 euroko saria Ane Arzelusentzat izan zen. Azkenik, Paulo Albisuak komiki bilduma

bat eraman zuen etxera. Halaber, lan guztiak *Galtzaundiren* papezko nahiz webguneko edizioan argitaratuko dituzte.

Aurten ere lehiaketarekin «oso gustura»

Guztira 100 lan inguru jaso dituzte antolatzaileek. Galtzaundiko arduradunak gustura daude lehiaketak izan duen erantzunarekin, baita parte-hartzaileen lanek izan duten mailarekin.

Epaimahaia ere pozik geratu dela azaldu zuten Galtzaunditik:

«Aurkeztu diren lanen artean denetik topatu ahal izan dugu, baina orohar maila altua izan dela nabarmendu dute epaimahaiko kideek; zenbaitetan oso zaila egin zaie erabakia hartzea».

Lanak baloratzerakoan epaileek «garbitasuna, idazmena, istorioaren zuzentasuna, marrazkiak, materiala, teknika...» hartu dituzte kontutan.

Datorren ostiralera arte, gainera, bildutako lan guztiak ikusgai izango dira Benito Izagirre kultur etxean.

«Nire lana frikien defentsa bat izan da»

IOSU MITXELENA » Galtzakomik Lehiaketako irabazlea

Kultura » 18 urte gorakoan sailean lehen saria eraman du Oartzungo; eskarmentua badu marrazkigintzan.

N. LATABURU

«Arotza izateko ikasi baina marrazkigilea bokazioz». Horrelaxe definitzen du bere burua Iosu Mitxelenak (Oartzun, 1972), Galtzakomik Lehiaketako bigarren edizioako irabazleak.

Lehen saria irabazi duzu. Espero al zenuen?

Lehiaketa batera zure lana aurkezterakoan beti duzu irabazteko es-



HITZA

perantza, noski. Baina aldi berean inoiz ez dakizu zer gertatuko den; nahiz eta lan on bat aurkeztu beste parte-hartzaileena hobeia izan daiteke.

Zer kontatzen duzu zure lanean?

Frikiei buruzko istorio bat da. Saiatu naiz azaltzen zergatik den gazte bat frikia. Azken batean zaletasun arraroak izatean bere errealitate-tik babesten ari da pertsona. Horregatik frikiz inguratuta gaudela iruditzen zait, guztiok gara frikiak. Nire lana frikien defentsa izan da. Hau guztia umorez egiten saiatzen naiz. Karikaturak ditut gustuko.

Karikaturena badu bere arriskua, muga non finkatu...

Mundu guztia karikaturizatzen duzu, inor ez da salbatzen. Baina, lehendabizi norbere burutik hasi beharko luke. Hala ere, ez naiz berezik gordina komikiekin. Azkenaldian nire pertsonaiak handituta marrazten ditut, exageraturik.

Zer uste duzu ikusi duela epaimahaia zure lanean?

Lehiaketena oso erlatiboa da. Irabazteak ez du esan nahi zure lana onena denik, ezta alderantziz ere. Nire marrazkiak oso *monigoteak* ziren, gorputz handiekin eta buru txikiekin. Agian hori gustatu zaie. Istoriorekin ere ados edo identifikatuta sentituko ziren akaso.

Aspalditik marrazten al duzu?

Txikitzen eskolako mahai gainean

margotzen zuten horietakoa nintzen. Marrazketan beti ongi aritzen nintzen. Ondoren, arotza izateko formazio profesionala egin nuen, baina inoiz ez dut horretan lan egin. Bokazioz beti izan naiz marrazkigilea.

Eskarmentua baduzu, beraz.

Marrakzi bizidunen enpresa batean 9 urtez aritu nintzen, *Ipurbeltzen* 5 urtez ere aritu nintzen, pasaden urteko udan aldizkaria itxi zuten arte. Azken hiru urtetan, berriz, nire gisa egiten ditut marrazkiak, autodidakta naiz. Kolaborazioak egiten ditut hainbat argitalpenetan, diseinatzaile bezala...

Eta orain, ba al duzu proiekturik buruan?

Beti ikasten aritu behar duzu, orain nire burua birziklatzen ari naiz, marrazki bizidunetatik ilustratzailea. Komikigintzan edo umore grafikoa gustura ariko nintzateke aukera izanez gero.

**90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEKIN.**

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Artisuko orotarako aseguru zure Citroen berrian, errekaratu eta interesik gabeko eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN preferre TOTAL

CITROËN C3 **7.300€**etik

CITROËN C4 HDi **11.600€**etik

CITROËN XSARA PICASSO HDi **12.800€**etik

www.citroen.es

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

E Elkarrizketa



HITZA

DESORDUTAN ▶ Musika taldea

«Eromena zor diogun jende asko daukagulako inguruan»

Alegia ▶ Desordutan talde gazteak bere azken lana, 'Eromena zor dizut' izeneko aurkeztuko du gaur 22:30ean, Gaztetxean.

ESTI EZEIZA

Alegiako gaztetea bere 22. urterrena ari da ospatzen egun hauetan, eta ekitaldien artean, gaur Desordutan taldea entzuteko aukera izango da zuzenean. Beraien azken lana, *Eromena zor dizut* aurkeztuko dute Txus Aranburuk, Julen Goikoetxeak, Iñigo Karretrak eta Egoitz Ezkerrak. Kontzertua 22:30ean izango da.

Eromena zor dizut, jarri diozue izenburu zuen bigarren lanari, zergatik?

Txus Aranburu: Aspalditik genuen Iñigo Aranbarriren poesia bat musikatuta. Gustatu zitzaigun letra bat zen, baina izenburua Desordutan zen, eta duela urte batzuk, taldearen izenaz ari ginenean, izan zitekeela ere uste genuen, eta hortik atera genuen taldearen izena bera. Bestalde, poema horretan, lehen ahapaldian dio eromena zor dizut, eta hortik dator disko honen izenburua. Egia esan, kantua aspaldikoa da, baina duela gutxi arte ez diogu beste bueltarik eman. Orain, berriro hasi garenean, diskoarako egokia dela ikusi dugu. Azken batean, eromena zor diogun jende asko daukagu inguruan eta horrela erakusten dugu beraiei zuzendua dagoela.

Egoitz Ezkerra: Gainera, izenburu gisa, duen esanahiagatik, disko

honetarako egokia dela pentsatzen dugu.

Aipatu bezala, zenbait poeten lanak musikatu dituzue. Hau nola izan da?

T. A.: Ez zaigu edozein letra jarzea gustatzen. Freskoagoak diren kantuetan bai, horietan, letra arinagoak jarri ditugu. Baina orokorrean, hitzek esaten dutenetan arreta jartzea gustatzen zaigu.

Hausnarketa garaian, laurak bakarrik sartu ginen lokalean, eta lokaleko soinua bilatu

Hiru poeten lanak musikatu ditugu. Hasteko aipatutako Iñigo Aranbarriren kasua. Bestetik, Joan Aldamizetxebarriaren hitzak asko gustatu zitzaizkigun. Berzia dagainera kasu hau, orain gutxi arte jendeak abestia nire zela uste baitzuen, eta ez zen horrela. Azken berriz, ia enkarguz izan da. Eneko Aranburu nire anaia da eta diskoan berak ere modu batean edo bestean parte-hartzea nahi nuen.

Noiz hasi zineten diskoa prestatzen?

Julen Goikoetxea: Azken urte eta erdi hau berezia izan da. 2008an kontzertu asko eman genituen uda

inguruan, eta gero abenduan, Iñigo Karretrak istripu bat izan zuen. Ondorioz, eta halabeharrez, geldialdi bat egin behar izan genuen. Atsedernaldi horretan, buruari buelta batzuk ematen hasi ginen eta taldearekin zer egin nahi genuen hausnartzen. Diskoa grabatzearen ideia hor zegoen, bagenekien lan asko eskatzen zuela horrek, eta azkenik, kontzertuak pixka bat alde batera utzi eta horretan zentratzea erabaki genuen. Hala, 2009an, diskoa grabatzen hasi ginen arte, hau prestatzen ari ginen buru-belarri. Azkenik, uztailean grabatu genuen, eta orain gutxi, zuzenekoak prestatzen hasi gara.

T. A.: Gakoa hor dago, Iñigoren istripuan. Une horretan, jokoz kanpo geratu ginen gainontzekoak. Azken urte hauetan, aukera izan dugu haizeko hirukoarekin zuzenekoak jotzeko, baina hausnarketa garai horietan, laurak bakarrik elkartu ginen lokalean, eta lokaleko soinua bilatu genuen. Bestalde garrantzitsua izan zen ere, Bonbereneak une zail horietan egin zuen apustua. Ate guztiak ireki zitzaizkigun, eta horrek ere bizia eman zigun.

E. E.: Haizekoak alde batera geratu zirenean, ohartu ginen, abestiak eraldatzen joan zirela. Beste modu bateko kantua ateratzen ziren, eta ikusi genuen, hauek, disko batean biltzeko modukoak zirela.

Hala ere, disko honetan, bi abestietan parte hartu du haizeko hirukoak.

T. A.: Maketa atera genuenetik, 2008ko negura arte, zuzeneko Desordutan-ek eta haizeko hirukoak osatzen zuten. Guzti hau pasa zenean, eta abesti berriak egiten hasi ginenean, beste aire bat eman nahi izan genion diskoari, eta laukote formatuari garrantzia eman. Hala ere, bidelagun oso onak izan ditugu haizeko hiruko kideak, eta lan honetan ere parte bat eman nahi izan diegu.

J. G.: Azken batean, lokalean sartu ginenean, eta abestiak egiten hasi, ohartu ginen, taldearen soinua aldatu egin zela. Maketan zegoena, eta guri azken kontzertuetan ateratzen zitzaiguna, ez zirela berdina. Orduan, abestiak egiten hasi ginen eta hauek beste estilo batekoak ziren. Laukote bezala jotzeko apustua egin genuen eta disko bat ateratzeko. Ondorioz, Desordutan-i soinua haur geratu zaio.

Hemendik aurrera ere, haizeko

hirukoarekin jotzen jarraitzeko asmoa al duzue?

T. A.: Hasiere batean, laukote formatoa mantentzen saiatuko gara, baina, batek daki. Agian beraiekin batera kontzertu berezi bat antolatuko dugu. Gustatuko litzaziguke beraiek ere parte hartzea.

Disko hau biziagoa eta rockeroago dela esan daiteke.

T. A.: Badu pop oinarri bat, baina ez da horren nabarmena.

Gustura al zaudete emaitzarekin?

T. A.: Bai, gustura geratu gara lortutako soinurekin.

E. E.: Lokalean gustura geunden abestiek. Gero, behingratu eta

Apustua egin dugu, laukote bezala jotzeko eta disko bat ateratzeko; soinua berezia lortzeko

nahastean, oraindik eta gehiago. Soinua atera diogula ikusi dugu.

Garai hauetan, disko bat kalera etzea ez da erraza.

T. A.: Guk ez dugu diskoa ateranegozioa egiteko. Gure helburua da, egindako lana ahalik eta gehien zabaltzea, eta ate gehiago irekitzea.

2008ko Kilometroetako abestia egiteak lagundu al dizue?

T. A.: Talde eboluzioan lagundu digu, batik bat. Kilometroetako garai horretan, kontzertu handi bat edo beste eman genuen, baina gero, lehen aipatutako geldialdia etorri zen. Hori dela eta, ez dugu horrenbesteko aldaketarik nabaritu. Proiektu oso berezia izan zen, aberasgarria.

Azaroaren 27an, Bonberenean aurkeztu zenuten diskoa, zer moduko harrera izan zuen?

T. A.: Bagenekien egun berezia izango zela, eta horrela nahi genuen gainera. Bonberon egin dugu lan guztia, eta aurkezte ere horrela egin behar genuen. Bestalde, Bonberokoek ere festa giroan bizitu zuten hau, eta oso polita izan zen. Diskoa fisikoki han zegoen, lagun guztiak etorri ziren eta honez gain, Iruñeko Innervet taldearekin jotzeko aukera izan genuen. Orokorrean, zuzeneko indartsuago ikusten zela esan ziguten.

J. G.: Guk ere hori landu dugu: kantua nola joango diren, zuzeneko nola ikusiko den eta abar.



11°
1°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 5°
HOTZENA 0°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-ko Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kale ikuskizuna

■ **Tolosa.** Deabru Beltzak konpainiaren ekitaldi ibiltaria, 18:30etik aurrera Triangulotik abiatuta.

Kirola

■ **Zizurkil.** Hamabi ordu kirolean: 10:30etik 12:30era haurrentzat kirol eta jokoak Intxaur frontoian; ondoren hamaiketako eta, 17:00etatik 19:00etara, Otaño Ikastetxeko frontoian Kart autoak. 22:30ean XIII. Gau krosa.

■ **Ibarra.** Adiskidetasunaren Futbito Txapelketa. Final-laurdenak 16:00etan Belabietan.

Topaketak

■ **Tolosa.** Bilgune Feministaren Biluztuz jantzi topaketak 09:00etatik 18:30era.

Kantu Jira

■ **Villabona.** Kantu Jira Berdura plazan, 12:00etatik aurrera.

Zinema

■ **Tolosa.** Doraemon eta dinosauro txikia 17:00etan Leidorren.

Musika

■ **Tolosa.** Bonberenean 22:30ean Estricalla eta Freed Kennedys.

■ **Tolosa.** 20:15ean Salus Balzaren omenezko kontzertua Santa Klara komentuan.

■ **Alegia.** 22:30ean Desordutan taldearen kontzertua Gaztetxean.

Proiektzioa

■ **Tolosa.** Landa Eremuko Emakumeen Diagnostika eta gaitzain-jatea Aldaban 20:00ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiz, L. Amaro azua, 9. 943 67 51 18.

■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52, 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Saio berezia: Txuleta Fest. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Mendialdean bizi. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Perretxiokak. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Nonochan. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Saio berezia. **14:30.** On ein! **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Golb tb. (*16:30etik 20:00etarako blokea 4 ordu).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aralar Mendia Natura azterketaren aitzindari; Inguru fisiko; Sustrai mitologiak... aurkitzen dira Baliarraingo erakusketan. ENERITZ MAIZ



600 urteren historia 10 paneletan ikusteko aukera dago Baliarrainen. Haurrentzat berriz, beste 10 panel jarri dituzte. Gaia bakarra baina zabala da: Enirio-Aralar Mankomunitatea.

Baliarrainen erakusketa zabalik

ERREDAKZIOA

Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrena ospatzeko, Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapena Sailak antolatutako ekintzen artean, mankomunitatea osatzen duten herrietan ikusgai egongo den erakusketa ibiltari bat diseinatu dute.

Atzotik, Baliarrainen ikusgai dago erakusketa hau. Araziko Begoña Riverok azaldu duenez, «eskualdeko beste hainbat herri ere bisitatuko ditu erakusketa honek, Amezketeta, Ikaztegieta, Abaltzisketa eta Orendain, hain zuzen ere».

Enirio-Aralar Mankomunitatea 15 herriren artean osatzen dute. Juanjo Nazabal, Baliarraingo zi-

negotziaren esanetan, «historia azaltzen duten argazki eta panelek osatzen dute erakusketa: artzaintza Aralarren; Amezketeta inguruko kobetan meatzariak kobrea ateratzen; elurra zuloetan nola mantentzen zuten ikusten da etab.».

Haurrentzat 10 panel aurkitzen dira erakusketan: Satorrak al gaur; Altxorren bila eta Izaki harrigarrien bizilekua bezalako leloekin.

» ERAKUSKETA IBILTARIA

- **Igendera arte.** Baliarrainen egongo da.
- **Hilaren 24tik 27ra.** Amezketeta.
- **Abenduaren 31tik urtarrilaren 3ra.** Ikaztegieta.
- **Urtarrilaren 28tik 31ra.** Abaltzisketa.
- **Otsailaren 4tik 7ra.** Orendain.



agurrak urtebetetzeak jaioberriak
urrezko etzeiak jaunartzeak...
ezkontzak

Mesede, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.
• HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
• HITZaren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa